

infraganti

EGOITZ MURGOITIO

Gaur eguerdian egingo da Abadiñoko ziklo-kros probaren bigarren edizioa. Egoitz Murgoitio herritarraren itzulera izango da, zalantzarik gabe, ikusmin nagusietako bat. Motibazio faltagatik utzi zuen orain ia bi urte goi mailako kirol jarduna eta «presiorik gabe eta gozatzeko» helburuarekin dator berriz ere lokatzetara.



Murgoitio, Muntsaratzeko dorrea atzean duela. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Etxe inguruko erre-
pideek hartu zu-
ten 8 urte baino ez
zituenean txirrin-
dularitza lasterke-
tetan egindako es-
treinaldia; herriko landak
izango ditu gaur bere itzulera-
ren testigu. Orain ia bi urte utzi
zuen goi mailako lehiaketa

Egoitz Murgoitio txirrindulari
abadiñarrak; atsedena eta moti-
bazioa behar zituen eta biak ba-
tuta datorrela aitortzen du.
Ohi baino lasaiago eta sakona-
go hitz egiten du txirrindulari-
tzaz ari denean, eman dionaz
eta kendu dionaz jardutean.
Atzera begira, barrez dio jaiotze-
ko unean bertan bizikleten buel-

tan zebilela: «Osabaren –Jabi Re-
kalde txirrindulari profesional
ohia– lasterketa ikusten ari zela
hasi zen nire ama erditze aurre-
ko uzkurdurak sentitzen eta ber-
tatik joan zen ospitalera». Bizi-
tzako lehen urte haietan goi
mailako txirrindularitzatik
edan zuen sarri: «Gogoan dau-
kat osaba goizetan entrenatzera
joaten zela eta amamak presta-
tutako bazkariarekin nola ego-
ten ginen noiz itzuliko zain». Bi-
zikletan igota itxarongo zion
oso umetatik, izan ere, bi urte
zituenerako utzi zituen alboan
oreka mantentzen laguntzen
zioten atzeko gurpil txikiak.
Osabaren arrastoari segika-
edo, oso laster sartu zitzaion las-
terketetarako grina, behar baino
lehenago ere bai agian, gutxie-
neko adinik ez eta zain egon be-
har izan zuelako Andra Mari au-
zoan –bertan bizi da– egiten zen
lasterketa batean parte hartze-
ko. Han, jaioterrian bertan, abia-
tu zuen, lasterketatik lasterketa-
rako lasterketa.
Errepidean egin zituen lehen
urteak eta ziklo-krosa negu par-
tean sasoiari eusteko baliatzen
zuen. «Afizionatuetara pasata-
koan bi urtez biak egin nituen,
baina errepidean buru-belarri
aritzeko gomendatu zidaten be-
har bezala atsedeen hartzeko»,
gogoratu du. 2006an profesio-
naletarako jauzia egin zuen Ni-
colas Mateos taldearen eskutik,
baina lehen lerroan egotearen
gozoak dastatu baino ez zituen
egin, babesleak izandako arazo-
ak medio taldea berehala desa-
gertu baitzen. «Berriz ere afizio-
natuetan birkalifikatu nintzen
eta bi urte gehiago eman ni-
tuen; nekatu egin nintzen, oso
maila ona emanagatik ez bai-
tzen berriz ere profesionaletara
igotzeko aukerarik iristen. Hala,
26 urterekin, bizikleta albora-
tzea pentsatu nuen».
Berriz ere pare-parean jarri zi-
tzaion ziklo-krosean aritzeko
aukera. «Txirrindularitza uztea
zen lehen asmoa, baina David
Secok eta etxeko jendeak ani-
matu ninduten ziklo-kros den-
boraldia egitera; errepidean ari-
tuta dagoeneko hanketan ondo
prestatzeko adina kilometro pi-
latuak nituelako», azaldu du.

Gomendio haiek eman zizkiote-
nak ez ziren okertu, negu hartan
Espainiako Kopako lasterketa
bat irabazi eta Munduko Txapel-
ketara joateko txartela lortu bai-
tzuen.
Euskal Herrian eta Estatu es-
painolean ziklo-krosean errefe-
rentzia bilakatu zen laster eta
urrunago ere izena egiten hasi
zen Hirumet taldearen babes-
arekin. Ziklo-krosetik bizi nahi
izatekotan, etxetik kanpo lehia-
tzea behar-beharrezkoa dute
modalitate honetan, Estatu
frantsesean, Herbeheretan edo
ta Belgikan, esaterako. «Afizio
eta tradizio handia dago atze-
rrian, Herbeheretan eta Belgi-
kan batez ere. Futbolarekin he-
men gertatzen dena gertatzen
da; talde onak daude eta horrek
berak afizioa sortzen du. Belgi-
kar eta herbeheretarrak ziklo-
krosean beti izan dira onenak
eta horrek berak jarraitzaileak
sortu ditu». Joan-etorrian Mur-
goitiok apenas bere abizena esa-
ten zekiten jarraitzaileen artean
izena egitea lortu zuen.
MOTIBAZIO FALTA
Eta inoizko emaitzarik hobere-
nak lortzen ari zenean, 2014ko
urtarrilean hain zuzen, goi mai-
lako lehia alboan uzteko eraba-
kia hartu zuela iragarri zuen.
«Erabakia, 'kito!' esatea, egun ze-
hatz batean hartu nuen, baina
'run-run' aspaldian neukan bu-
ruan. Aurreko denboraldia
amaitu eta hurrengo hasi bi-
tartearen nabaritu nuen. Aurreko
urteetan hilabete atsedeen hartu
eta gogotsu egoten nintzen be-
rriz ere entrenamenduak hasi
eta denboraldia prestatzeko... Ez
nuen halakorik sumatzen», ai-
tortu du.
Behin gogo hori galduta, oste-
gunetik astelehenera arte etxe-
tik kanpo ematen zituen egunak
ere gogorrago egiten zitzaizkion
egunetik egunera: «Gero eta
gehiago botatzen nuen faltan
bariku batean lagunekin afaltze-
ra joatea, edota, besterik gabe,
Abadiñon egotea». Ideia hori
burrunka zuela, lasterketa ba-
tean izan zuen erorikoak eta hu-
ra osatzeko hartu behar izan
zuen atsedenaldiak balio izan
zion behin betiko erabakia har-



Apenas jaitsi da bizikletatik Egoitz Murgoitio, ofizio zuena afizio ere baduelako. Azken denboran, ordea, sarriago eta indartsuago entrenatu du. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

tzeko. «Osatzen ari nintzela Berrizko zirkuitura joan nintzen, eta, buelta eskas bat egin nuenean, konturatu nintzen jada ez nintzela jarraitzeko gai. Erabat hondoratu nintzen eta neska-lagunari eskatu behar izan nion bila etortzeko, etxera bizikletan itzultzeko kemenik ere ez nuen».

Hala utzi zuen askorentzat ametsetakoa zen bizimodua: «Egia da, bizikletaz bizi nahi eta ezin duen pertsona batek pentsatuko du huts egin nuela, baina nik une horretan bizitza normala egin nahi nuen, lagunekin egon, neska-lagunarekin afaltzera lasai irten... Jende askok pertsona pribilegiatu baten bizitza utzi nuela pentsatuko zuen, baina niretzat orduan eurak ziren pribilegiatuak». Barrez dio orain askoz ere bizimodu gogorragoa daramala, egunean hamar bat ordu kamioiarekin lanean pasa ostean igo behar baitu bizikleta gainera entrenatzeko.

Nekeak neke gustura dago ez duelako sentitzen lehen zuen presioa; «egunero aritu beharra-rena, lasterketara joan eta emaitza jakin batzuk lortzekoa, hobetu eta beti gehiago hobetzeko larria». Izan ere, hori ere bada lehia: «Presioa eramaten jakin egin behar da; atzerrian emaitza onak egitetik etorri eta etxean lasterketa bat irabazten ez barenen frakaso gisa ikusten zuen jendeak, eta, aldi berean, kanpoan lortu nituen emaitza onak –azkenengo urtean hamabigarren eta hamalagarren postuak lortu zituen Munduko Kopako bi lasterketetan– ez zirela behar adina errekonozituak

«Jende askok pertsona pribilegiatu baten bizitza utzi nuela pentsatuko zuen, baina niretzat orduan eurak ziren pribilegiatuak. Nik une horretan bizitza normala nahi nuen»

«Errepideko bizikleta utzi eta ziklo-krosean hasi nintzenean izandako sentsazioetara itzuli nahi dut: presiorik gabe joaten nintzen probetara, korritu eta disfrutatu egiten nuen»

izan uste dut», onartu du, zentzu horretan goi mailako kirola uzteak ekarri dion lasaitasuna nabarmenduta.

Lagun batek botatako hordagoak jarri du berriz lokatzetan. «Erdi brometan hasi zitzaidan amua botatzen eta mailota jarritz gero aterako nintzela esan nion; bada begira...», aipatu du.

Horrenbeste estimatzen duen «bizitza normala» gozatu du eta gozatzen jarraitzeko asmoa du berriz ere bizikletaren gainean lehian arituko bada ere; izan ere, «beste modu batera» lehiatzeko asmoa du. «Lehen neukan egoera ez nintzateke itzuliko inondik

inora. Itzuli nahi dut errepideko bizikleta utzi eta ziklo-krosa egiten hasi nintzenean izan nituen sentsazioetara: presiorik gabe joaten nintzen lasterketetara, korritu eta disfrutatu egiten nuen», dio. Bere ingurukoek ere sentsazio bertsuak izan ditzaten nahi du. «Gurasoak lasai ikusi nahi ditut ibilbidearen bueltan, gozatzen», aipatu du, haiek ere egin dituzten sakrifizio guztiak onartuta. «Aitak eta Jon Zengotabengoa managerrak milaka eta milaka kilometro egin dituzte nire lasterketetara joateko; ziklo-krosa uzteko aukera buruan izaten nuenean haiekin akordatzten nintzen...», oroitu du.

Guztiak, senitarteko eta lagunak, gogotsu daude gaur Abadiñon gozatzeko eta bidean jarraitzeko. Ondoren, patxadaz, Egoitzek berak erabaki beharko du berriz ere marraztu nahi duen bidea. •

Maider Eizmendi